

**ELKARRIZKETATZAILEA: AMAIA NEGRO ITURREGI**

**ELKARRIZKETATUA: MARIJE JAUREGI**

**ELKARRIZKETA DATA: 24/07/2010**

**LEKUA: NATXITUA (EA)**

**ELKARRIZKETAREN IRAUPENA: 01:31:23**

### MINUTUEN ARABERA TRANSKRIPZIOA

00:00:00 Aurkezpena

00:01:00 Txikitan ez zuten biderik euki, ta Ereñora joaten ziren eskolara. Bera pixkat "pribilegiatuago" izan zen, Ereñon bertan geratzen zelako bazkaltzen tabernan, etxera bueltatu beharrean

00:03:00 Gurasoak baserritik bizi ziren. 60 hamarkadan lortu zuten bidea egitea eta orduan hasi ziren esnea saltzen.

00:06:34 Txikitan batez be baserriko animaliak eta ortuari esker bizi izan ziren. Ez zuten euki baserritik kanpo mugitzeko aukera handirik. Ama noizean behin joaten zen Gernikako plazara saltzera. Maiukiak saltzen zituzten eta txahalak

00:09:53 Hamasei urterekin Gernikara joan zen 3 urtez josten ikastera, gero baserrira bueltatu zen berrize. 24 urterekin operario kirurgiko bat egin zioten, gaztetan ahul xamarra izan zela gogoratzen du.

00:10:50 Bera lau neba-ahizpetatik gazteena. Bere ahizpa soltera baserrian geratu zen eta biok bizi izan ziren luzaroan baserrian

00:11:57 Bera ezkondu eta Amerikara joan ziren. Berari ez zitzaion gustatu eta alaba jaio orduko bueltatu zen Ea-ra. Gizona Amerikan segitu zuen luzaroan

00:14:46 Ahizpa eta biok baserrian geratu ziren. 60 hamarkadan ama, Amerikatik etorritako osaba bat, amaren ahizpa bat eta familiako beste lagun bat zaintzen egon ziren. Euren zainketa egin zuen posible eurak bertan baserrian geratu ahal izana

## AHOA Ahozko Historiaren Artxiborako Elkarte

00:20:06 Amak izendatu zuen baserria eurak biontzako, bere ahizpa soltera eta berarentzako. Neba eta ahizpa nagusiak bizitza egin zuten kanpo.

00:23:25 Aita ezkondu zen baserrira. Ama eta bere neba-ahizpak ondoko baserrian jaiotakoak dira

00:25:24 Osabak kontatzen zuen Olagorta alde hori ugazaba batena zela. Horrek dena galdu zuen eta hor euki zuten aukera aitite eta amamak ondoko lurra erosteko eta hor bertan baserria egiteko 1904 urtean. Momentu horretara arte errenteroak izan ziren.

00:28:35 Amaren neba-ahizpa gehienak Amerikara joan ziren lanera. Joera handia egon da inguru horretan Amerikara edo itsasora lanera joateko, ez zegoen beste irtenbiderik. Orain gazteak askoz gutxiago joaten dira hara lanera.

00:31:17 Gaztetan ez dute euki biderik, ez urik ez argirik bizitzeko. Hori dena lortzeko bertako jendea izan da ipini duena.

00:35:22 Hogeita hemeretzi urterekin ezkondu zen. Momentu horretara arte baserrian bizi izan du.

00:36:07 Gaztetan erromerietara ez dira asko atera, biderik ez zutelako eta oinez joan behar izaten zuten. Natxituan Gramola egiten zen.

00:40:00 Natxituan jaiak Santa Ageda-tan eta Andra Mari-tan izaten ziren. Jendea Ama Birjina ikustera etortzen zen eta batzuk hortaz aprobetxatu egiten ziren

00:43:20 Gramolan askok topatuko zuen emaztegaia edo senargaia. Berak ez zuen hortxe aurkitu gizona, berea Amerikatik etorri zen. Nagusiago izan direnean kotxearekin Lekeitiora eta Gernikara joan izan dira.

00:45:34 Ahizpa biak baserrian irauteko aurkitu zuten modua edadeko jende hori guztia zaintzea izan da. Eurek gero beren dirua eta patrimonio guztiaren donazioa egin zieten.

00:50:07 Senarra Amerikatik bueltatutakoan baserriaren antolaketan egin du lan

00:50:50 Aita Ereñokoa zen. Hango baserrian errentadoreak izan ziren. Hango ugazabak aitaren arreba batekin ezkondu nahi zuen

## AHOA Ahozko Historiaren Artxiborako Elkarte

semea, arrebak ez zuen nahi eta Amerikatik etorritako osaba batekin ihes egin zuen Argentinara. Ugazabak familia bota zuen baserritik. Geroago Argentinako familia eurekin jarri da kontaktuan eta Argentinan egon dira.

00:56:20 Eskolan txikitan ezin zuten euskeraz hitz egin. Gogoratzen du eskolakide batekin gertatutakoa

00:59:28 Doktrinara joan behar izaten zuten.

01:00:24 Bere garaian ez zen politikarik egiten

01:02:07 Baserritarra beti pertsona atzeratua ulertu egin da. Baserriak badauka balore naturalen aportazioa pertsonaren heziketarako. Bera Gernikara joan zenean ulertu zuen hango neskek bera baino azkarragoak ez zirela

01:04:04 Berak gaztetan ez du euki ikasteko aukerarik, gero bere kontura aritu da hainbat gauza ikasten: ingelesa, euskera irakurtzen. Bere alabari azterketa aurreko frogak prestatu izan dizkio. Berarekin dauka bere alabak konfidantza gehien.

01:08:12 Emakumea gehiago arduratu da etxeko kontuetaz eta baserriko antolakuntzaz Euskal Herrian, matriarkado bat izanik.

01:10:43 Lehen pertsona baserrira ezkontzen zen eta hor jasan behar ziren egoera eskasak

01:12:44 Bere osaba 1988an hil egin zen 100 urte eukita

01:14:24 Amerikara bai gizonak eta bai emakumeak joan dira. Gehienak hara joaten ziren diru apur bat lortzeko eta horren bitartez ezkontzeko modua eduki.

01:16:04 Hainbat pertsona baserrian geratu da. Askok pinudiak saldu zituzten eta gero baserria laga.

01:19:00 Lehen emakume baserritarrak ez du euki irtenbide handirik. Baina bai etxean bertan matriarkatua ezagutu dela, euren kasuan holaxe izan zen.

01:20:29 Orain baserriko bizimodurik ez dago, desagertzeko zorian dago. Itsasoko eta baserriko antolakuntza aldatu egin behar du, bizirik irauteko oraingo merkatuan.

## AHOA Ahozko Historiaren Artxiborako Elkarte

01:25:13 Baserria gogorra da. Independiente da baina beste gauza batzuen menpe egoten zara.

01:26:56 Sistema "mixto" a egon da asko. Gizona lantegian egiten zuen beharra eta emaztea baserrian, abereekin edota ortuan. Gazte gutxi dago baserrian

01:29:10 "Garijote" egiten zen. Makina bat pasatzen zuten irina egiteko. Auzolanetan biltzen zen jendea eta gero denon artean bazkaldu.

01:31:23 Grabazioaren amaiera